

# **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure produktuen ekoizpena beste enpresen esku lagako dugu, adibidez zerrailak enpresa espezializatu bati eskatuko dizkiogu guretzako bereziki egiteko( kantitate handietan merkeago atearatzeko banakako produktua), kamarentzan enpresa bati erosiko dizkiogu kantitate handietan merkeago ateratzeko eta gure enpresako adituak edukiko ditugu hauek aldatzen aplikazioarekin konektatzeko.

Arazoak konpontzeko gu geu egongo gara, telefonoz, email bidez eta pertsonan edozein arazo edo zalantza argitzeko. Arazo fisiko bat edukiz gero gure enpresako adituak joango dira fisikoki arazo hori konpontzera.

Gure plataformak eta sareko jarduerak guk geuk eramango ditugu. Web orria hasieran guk sortuko eta eramango dugu eta enpresa aurera doan heinean aditu bat kontratatuko dugu web horria hobeto egiteko eta gehigarri gehiago edukitzeko gure web horriak. Instagrama guk eramango dugu, argazkiak eta dena guk egingo dugu.